


Año LV. urtea

135 - 2023

Urtarrila-ekaina

Enero-junio



FONTES LINGVÆ VASCONVM STVDIA ET DOCUMENTA

Hazitik liliak

Zenbait ekarpen euskal ikasketen ikerketan

Olatz Leturiaga Angoitia
Aitor Lizardi Ituarte
Iñigo Urrestarazu-Porta
(editore gonbidatuak)

Sumario / Aurkibidea

Fontes Linguae Vasconum. Studia et Documenta

Año LV. urtea - N.º 135. zk. - 2023

Urtarrila-ekaina / Enero-junio

HAZITIK LILIAK. ZENBAIT EKARPEN EUSKAL IKASKETEN IKERKETAN

Olatz Leturiaga Angoitia, Aitor Lizardi Ituarte & Iñigo Urrestarazu-Porta
(editore gonbidatuak / editores invitados / guest editors)

Hitzaurrea

Olatz Leturiaga Angoitia, Aitor Lizardi Ituarte, Iñigo Urrestarazu-Porta 7

Itxurazko egonkortasun linguistikoa eta hazkunde indexikala Bermeoko (lako) aldagaian

Azler Garcia-Palomino 11

Euskararen intonazioaren aldakortasuna: monografiaren ekarpena

Varun DC Arrazola 53

Jarraitu aditzaren erregimen-aldaketa testu akademikoen argitan

Sergio Monforte 69

Urigoitiko hiztegitxoari buruz

Asier Gonzalez Casado 101

Lizarrako gazteak: euskararen erabileran oinarritutako hiztun berrien profilak

Ainhoa Pardina Arenaza, Mikel Pérez González 125

Ama idazleak *Aitaren etxea* (2019) eta *Amek ez dute* (2018) eleberrietan

Aitana Albisua-Ortiz 151

Espazioaren eta ibiliaren errepresentazioak Pello Lizarralderen bi eleberrietan

Asier Urkiza Sánchez 175

Orixeren *Mireio* (1930). Literatura proventzarraren eta euskal literaturaren arteko zubia

Maialen Fernandez Martinez 205

Euskarazko bideojokoen azterketa deskribatzailea lokalizazioaren ikuspuntutik

Itziar Zorrakin-Goikoetxea, Maitane Junguitu Drona 231

Idazlanak aurkezteko arauak / Normas para la presentación de originales / Rules for the submission of originals

277

Urigoitiko hiztegitxoari buruz

En torno al glosario de Urigoiti

On the glossary from Urigoiti

Asier Gonzalez Casado
Euskal Herriko Unibertsitatea, UPV/EHU
asier.gonzalezc@ehu.eus
<https://orcid.org/0000-0002-4770-3323>

DOI: <https://doi.org/10.35462/flv135.5>

Lan honek Eusko Jaurlaritzaren Doktorego Aurreko Programako laguntza (2021-2022) jaso du, eta «Monumenta Linguae Vasconum 6: Avances en cronología de la historia y la prehistoria de la lengua vasca (PID-2020-118445GB-I00)» ikerketa-proiektuaren barnean egin da. Eskerrak eman nahi nizkieke Blanca Urgelli, Ricardo Gómezi eta Aziti Bihiako kideei, neuzkan zalantza batzuk argitzeagatik eta euren iradokizunengatik.

Jasotze data: 2022/11/05. Behin-behineko onartze data: 2023/04/28. Behin betiko onartze data: 2023/05/10.

LABURPENA

Artikulu honetan Orozkon (Bizkaia) topatutako hitz zerrenda eskuizkribatu baten berri ematen dut. Orainokoan hiztegi hau ez da ezeingo ikerketa akademikotan deskribatu edo aipatu. Liburuxka Urigoiti auzoan agertu zen, baserri baten berriztapen lanetan. Egile edo data agerikorik gabe egon arren, behin-behineko azterketa baten ostean esan dezaket XIX. mendekoa dela eta inguru hartan (Orozko-Aiaraldean) idatzi zela. Ikerketa honen helburua da obratxoaren ezaugarri fisiko eta lexikografikoez aritzea, hiztegiaren edizio kritiko bat prestatzeko bidean. Hiztegia osatzeko baliatu ziren balizko iturriak, idatzizkoak zein ahozkoak, eta hiztegiaren profila eta motibazioa ere hizpide ditut.

Gako hitzak: lexikografia; dialektologia; bizkaiera; XIX. mendea; hiztegia.

RESUMEN

En este artículo doy cuenta de un glosario hallado en Orozko (Bizkaia). Este diccionario no ha sido mencionado o descrito en ningún trabajo previo. El librito fue encontrado en el barrio de Urigoiti durante las obras de renovación de un caserío. Aunque carece de firma y fecha, tras un examen preliminar, puede datarse en el siglo XIX y situarse en la zona de Orozko y Ayala. El objeto de esta investigación es describir sus rasgos físicos y lexicográficos, en vistas a la preparación de una edición crítica del mismo. También trabajaré sobre las posibles fuentes, tanto escritas como orales, usadas para formar el diccionario, y acerca del perfil del autor y su motivación.

Palabras clave: lexicografía; dialectología; vizcaíno; siglo XIX; diccionario.

ABSTRACT

In this article I provide information on a handwritten glossary found in Orozko (Biscay). This dictionary has not been mentioned or described in any previous academic work. The booklet was found during renovation work at a farmhouse in Urigoiti. Even though it has no author's name or date, after a preliminary examination I can date and locate it to the 19th century in the area of Orozko-Ayala. The purpose of this research is to describe its physical and lexicographical features, in the process of preparing a critical edition of the dictionary. I will also comment on the possible sources, both written and oral, used to form the dictionary, and the author's profile and motivation.

Keywords: lexicography; dialectology; Biscayan; 19th century; dictionary.

1. SARRERA. 2. ESKUIZKRIBUA. 3. HIZTEGIA. 3.1. Hiztegiaren hedadura. 3.2. Hiztegiaren antolakuntza (makroegitura). 3.3. Sarreraren antolakuntza (mikroegitura). 4. ITURRIAK ETA DATAZIOA. 5. HIZTEGIGILEAREN IKUSPEGIA. 6. ONDORIOAK. 7. ERREFERENTZIAK.

1. SARRERA

Artikulu honetan orain arte argitara atera ez den hitz zerrenda baten xehetasunak aurkezteko asmoa dut. Aztergai dudana hiztegitxo Orozkoko Urigoiti auzoan aurkitu zen, eta Pablo Aramendi bizilagun orozkoarrari esker izan nuen haren berri: baserri batean topatu ei zuten kaier eskuizkribatua, eta berehala eman zioten Aramendiri. Berak gordeta dauka bere Urigoitiko etxean. Orain arte hiztegi hau ez da inongo lanetan deskribatu edo aipatu.

Hitz zerrenda orri multzo josi batean eskuz idatzita dago. Hala ere, egiletzarik ez da zehazten, eta, hortaz, ez dugu hiztegiaren autorearen izena ezagutzen, nahiz eta kaieraren azalean izen bereziren bat agertzen den. Hori horrela, idazkerari begira, esango nuke egile bakarra dagoela. Horrez gain, lehenengo arakatze batean erraz ohar gaitzke hitzak eta lokuzioak iturri jakin batzuetatik transkribatuak izan direla, egilearen asmoa hurrenkera alfabetikoan ordenatutako bilduma bat osatzea bide zelako, gaztelania > euskara norabidean.

Tamainaren aldetik, esan behar da koaderno txikia dela, gutxi gorabehera folio laurden batekoa, baina altuagoa eta estuagoa; zehazki, 170 x 80 milimetro ingurukoa. Hiztegiak 57 orrialde ditu guztira, azalak eta orri zuriak kontuan hartu gabe, eta 700 hitz baino apur bat gutxiago. Dena dela, hurrengo ataletan emango ditut bai eskuizkribuaren deskribapen zehatzagoa, bai hiztegiaren antolamenduari buruzko datuak.

Aipatutakoaz gain, obra honetan islatzen den euskararen nondik norakoak bilatzea dut xede. Hortaz, ahaleginduko naiz agertzen diren euskal hitzak geografian eta historian kokatzen; alegia, zein hizkeratakoak eta zein mendetakoak diren esaten.

Hiztegiaren kanpo elementuek asko laguntzen ez digutenez, hurbiltze linguistikoa iturri testualen bidez egin beharko da.

Funtsean, artikulua edukia hiru ataletan bananduta dago. Lehenik, kanpoko deskribapenari heldu diot (§ 2), eta, jarraian, barruko nomenklatura behar bezala ezaugarritu dut (§ 3). Azkenik, zerrendatutako hitzen jatorriaz eta iturri literarioez jardun dut (§ 4), horrek guztiak datazio batera gerturatzea ahalbidetu baitit.

2. ESKUIZKRIBUA

Atal honetan, hiztegia idatzita dagoen liburuxkaren ezaugarri fisiko eta azalekoei erreparatuko diet. Helburu horrekin, Moreno García del Pulgarrek (2007) deskribapen kodikologikorako proposatzen dituen irizpide eta sailkapenei jarraituko diet¹.

Lehenik eta behin, zehaztu behar da kaierean gaztelania eta euskara baino ez direla azaltzen, eta esku artean dugun obra motari *hitz zerrenda* edo *hiztegi txiki elebidun* dei diezaioket.

Eskuizkribuaren egoerari dagokionez, orriak nahiko zaharkituta daude, papera erabat horizatuta, eta, are gehiago, orri batzuetan hezetasunak janda daudela eta, marroi kolorekoa da ertzetatik orriaren erdialdera zabaltzen den orban (ikus 1.-16. or.; 17.-21. or. erdiko orban txiki bat bakarrik; 32., 33. eta 38.-41. or. ertzean soilik; 46.-57. or. berriro orban handi bat). Arrazoi berberetatik, idazkun batzuk irakurtzen zailak dira. Hori ez ezik, orri pare bat urratuta ere badaude, eta ertza falta zaie (ikus 57. or. eta atzeko azala). Halaber, hasierako orrialdeen ertz batzuk tolestuta daude (ikus 1.-14. or.). Hala eta guztiz ere, erdiko orriak egoera bikainean daude (ikus 22.-31. or., 34.-37. or., 42.-45. or.), koaderno zaharra izan arren, itxita dagoenean beste orriek babestuta egon direlako. Horietan papera ez dago hain horizatuta, ez dago orban marroirik eta ertzak osorik daude, tolestu gabe.

Liburuxkak ez dauka koadernaketa berezirik, hau da, material bakarra mota berbereko papera da, bai azaletan, bai barruan, eta orriak erditik tolestuta eta hari lodi bakar baten bidez lotuta daude, hiru puntutatik josita (ikus 1. irudia). Neurriak sarreran eman ditut, zehatzak ez badira ere: folio laurden bat baino altuagoa (~ 170 mm) eta estuagoa (~ 80 mm). Orrialdeen kopurua hau da: 57 orrialde idatzita daude eta 29, aldiz, hutsik. Hala gertatzen da, egileak hizki bakoitzari (*A, B, C, D...*) aurretiaz orrialde batzuk esleitu zizkiolako, sarreraburuak eta euren ordainak idazten hasi baino lehenago. Horrek garbi erakusten digu egilearen asmoa hasiera-hasieratik zela hitzak alfabetikoki biltzea.

Orrialdearen formatuari begira, testuaren antolamendua oso sinplea eta erregularra da. Idatzitako orrialde guztietan bi zutabe agertzen dira: ezkerrekoan gaztelaniazko sarreraburuak eta eskuinekoan euskal ordainak, eta horien artean hutsune bat, besterik

1 Blanca Urgelli zor diot erreferentzia hau, ahozko komunikazio baten bidez.




1. irudia. M hizkiari dagozkion 36. eta 37. orrialdeak; erdian jostura dago ikusgai.

ez. Kasu gutxi batzuetan (akatsak, seguruenez) ezkerrekoan euskara dago, eta eskuinean gaztelania; salbuespen hauek hurrengo atalean (§ 3.3.1) zehaztuko ditut. Orrialde bakoitzak hainbat lerro izan ditzake: gehienetan 15-18 artean. Orri batzuk bi aldeetatik idatzi dira: *rectoan* eta *versoan*. Orri guztien *rectoaren* goiko aldean (hutsik dauden orrialdeetan ere bai) egileak hizki bat letra larritan idatzi du, erdi-erdian; *versoetan*, ordea, hutsik ez daudenean ere, ez da inoiz agertzen. Hori esanda, orrialdeak zenbatuta ez daudenez, hemen erabiltzen dudana zenbaketa 1etik 57ra doa, orrialde idatziak soilik aintzat hartuta.


Egileak tinta iluna baliatu du hitzak idazteko, gaur egun arre edo marroi kolorekoa, eta argi dago tinta berbera dela kaier osoan. Era berean, obran dokumentatzen den idazkera esku bakar baten lana dela dirudi, hizki bakoitzak forma koherentea daukako hasieratik amaieraraino. Ildo horretatik, zenbait kontu aipatu beharko dira egilearen *usus scribendiari* dagokionez:

- Puntuazioa: testu osoan lau koma baino ez dira ageri; birritan adjektibo baten bi generoak adierazteko (*Hermoso,a* 26. or., *Vano,a* 55. or.), behin aditz baten forma burutugabea eta helburuzkoa erakusteko (*Jaten,co* 10. or.). Gainera, kasu bakar batean, komak lexema eta artikulua banatzen ditu (*Eder,ra* 26. or.), seguruenez gaztelaniazko sarreraburuaren eraginez (*Hermoso,a*).
- Laburdurak hauek dira, guztiak gaztelaniazko sarreraburuetan: *Atrevim.^{to}* (1. or.), *Fundac.ⁿ de Yg.^a* (21. or.), *Finalm.^{te}* (21. or.), *Ynfinitam.^{te}* (29. or.), *Le* (*Art.^o*) (33. or.), *lamañanasig.^{te}* (33. or.), *Movim.^{to} leve* (35. or.), *Remordim.^{to}* (46. or.). Hala ere, ez ditu automatikoki erabiltzen (adibidez, *Pensamiento* 43. or., *Recibimiento* 46. or.).
- Letra larriak hitz hasieran erabiltzen ditu oro har, sarreraburuetan zein ordainetan. Salbuespenak daude; adibidez, *Atrever azartu*, *Acostar etzi* (4. or.); *dominio Mende* (15. or.); *escogidos autucoac* (20. or.).
- Grafia batzuei buruz ere bada zer esanik (ikus iturriei buruzko atala):
 - Euskararen grafia estandarizatu aurretik ohikoa zen legez: <c> grafemak /k/ eta /s/ (*e, i* bokalen aurrean) ordezkatzeko (*onac, catiguac, azcortu, zorrionecua, cematu, ciarretara*), eta <gu>, <qu> digrafoak daude *e, i* bokalen aurrean herskari belarra adierazteko (*aguertu, guisan, auqueria, trasquilla*), salbuespenik gabe.
 - eta <v> grafien erabilera: euskal hitzetan soilik *viyotza* (bi aldiz) eta *vicilecua*; gaztelaniazkoetan honako forma (gaurko ikuspuntutik) ez-estandar hauek daude: *lavioz, liverdad, libertad, silvidoz*. Halaber, gaur ez bezala erabili da honako hitz hauetan: *todabia* (hiru aldiz), *tubo* ‘izan zuen’ (bi aldiz).
 - Txistukarien arloan gauzak nahasgarriagoak dira. Batetik, idazkeran ez dira <s> eta <z> beti garbiri bereizten (ikus 2. eta 3. irudiak); hemen hizkien artean (gehienetan) aske idazten den txistukaria <s>-ari egotzi diot, eta hurrengo hizkiari lotuta dagoena <z>-ari; antzera, hitz amaieran <z> dela diot, baldin eta buztana badauka (bukaerako <s>-ak ez bezala). Bestalde, badirudi txistukarien nahasketa euskaraz ez ezik (*zarri, ycazlari, zorigaistocua, ozpetsua, ospetzua, cintzatequesala, uzte, icuzi, semaitu, nois, espanaac, gaisqui, gustis, eguiyasco*), gaztelaniaz ere gertatzen dela egilearen hizkeran² (*atreverze, animarze, azperas, desozegado, hozpital, lavioz, lejoz, noloze, silvidoz, trofeoz, horrorozo, unaves*). Hori bai, zehaztu behar da euskaraz espero baino hobeto ezartzen dituela <z>, <ce> eta <ci> leku egokietan (txistukari lepokaria bereizteko) mendebaldeko hizkera izanda ere, seguruenez iturri literarioetatik atera baititu hitzak (§ 4).


2 Beharbada gertakari hau ez da hain harrigarria, hiztegitxo XIX. mendeko Bizkai-Arabaren mugan idatzi bazen. 1775. urtean Okondon jaiotako Jose Paulo Ulibarri idazle abandoarraren hiztegian ere <paiz> eta <Zudar> grafia ez-estandarrik aurkitzen ditugu (Ulibarri, 2011, 534.-535. or.).




2. irudia. <ozpetsua> euskal ordaina, <s>-ren forma garbi ikusten den arren, <s> lotua daukaten adibide arraroetako bat da.



3. irudia. <ospetua> euskal ordaina. Ez da ziurra bigarren txistukarian islatu nahi zuen hotsa, gainetik idatzita dagoelako; hala ere, aurrekoa bezalakoa ez denez, <z> eman dut.




4. irudia. <Animarze> gaztelaniazko sarreraburua.



5. irudia. <Hozpital> gaztelaniazko sarreraburua.


- Euskaraz /j/ hotsa irudikatzeko bi grafema darabiltza: <y> eta <j>, kokagunearen arabera. Hitz hasieran, gehienetan <J>: *Jazo, Jaun, Jarraitu, Jaquituria, Jantziera, Jagui... / Yarqui, Yaolia*. Bokalen arteko epentesi sabaikarian <y> da ohikoena: *cemaiya, zoriya, viyotza, eguiya, biyaramon, baliyotsua... / ezeuquijac, abeguija*.
- <Y> bokalikoa hitz hasieran erregulariki <i>-ren forma larritzat hartzen du hitz guztietan, gaztelaniaz (*Ynstruccion, Ynquieto...*) zein euskaraz (*Yrudiya, Yracurri...*).
- <ll>, /k/ irudikatzeko: *Barallia, Erallia, Salatzallia, Dollorra, Onguillia, Zurbilla, Eguillia, Crusellu, Trasquilla, Allaguiña, Yll onetan, Prallia, Ylguillia, Auciepalla, Yllguilla, Eralla, Osaguilla, Perzeguizallaac, Yssilleneranocuac, Salbaguillia, Nabillela*.
- <(i)ss>, /ʃ/ irudikatzeko: *Aisse, Eleissa, Goissago, Goissa, Yssilleneranocuac, Queressia, Gueisso*.

Hitzez gain, bestelako idazkunak badira liburuxkan, hala nola marrak, sasi-sinadurak eta apaindurak. Bi hitz zirrimarratuta agertzen zaizkigu, bata (irakurtzen zaila, baina seguruenez *Azquenic* euskal hitza da) 3. orrialdean ezkerreko zutabean (izan ere, *Alcabo Azquenic* jartzen du azpian), eta bestea 40. orrialdean, eskuinekoan, *Narrasa* ordainaren alboan (*flojo*, sarreraburuan agertzen den gaztelaniazko sinonimo lagungarri berbera). Bestalde, sarreraburuaren eta ordainaren artean hiru sarreratan egin du marratxo luze bat: *está — dago* (20. or.), *vez — badacutzu* (54. or.), *Yo — ni* (56. or.). Horrez gain, 24. orrialdean *Galduco* (ezkerreko zutabean) eta *Perder* (eskuinekoan) hitzen artean marrazki txiki bat dago.



6. irudia. Aurreko azala.

Aipatzekoa da egilea hitz batzuk non-baitetik (§ 4) kopiatzen ari zelako frogatzat har genezakeen 32. orrialdearen egoera: horretan, gaztelaniazko sarrera-buruak bakarrik daude (eta, gehienak, grafia ezohiko batean: *Levantarce*, *ler*, *lavioz*, *lenga*, *lejos*, *levantar*, *liverdad*, *largo*, *lapurra*, *le*, *lamanana*, *levantace*, *lagrimnas*). Aldameneko orrialdean (33. ean) berriro kopiatu zituen guztiak (*Levantarce*, *Leer*, *Labios*, *Lengua*, *Lejoz*, *Levantar*, *Livertad*, *Largo*, *Lapurra*, *Le* (Art.^o), *Lamañanasig.^{te}*, *Levantace*, *Lagrimas*), dagozkien euskal ordainekin eskuineko zutabeen.



7. irudia. Atzeko azalean dagoen idazkuna.

Azaletan ikusten dugunak azalpen luzexeagoa merezi du. Aurreko azalean sei hitz daude ikusgai, anabasan, lerro zuzenik gabe, nahiz eta horietako ezein ez den irakurgarria; ahalegina eginez gero, hauexek igar daitezke: *cornueyus*, *Luyandogua*, *Luyando*, *agiraga*, *ague*.

Atzeko azalean, aldiz, eragiketa matematiko batzuk idatzi dira (batuketak eta kenketak), *R* larri batzuk eta idazkun hauek: *Luis Luis de*, *Jus Justo*, *J Jus L*.

Deskribapen fisikoa amaitze aldera, esan dezadan zenbait ordainen aurretik puntutxo batzuk arkatzez markatuta daudela, bi zutabeen artean, beharbada Pablo Aramendik berak eginak.

3. HIZTEGIA

Atal honetan lan lexikografikoaren deskribapenari helduko diot; alegia, hiztegiaren antolamendua, nomenklatura, makroegitura eta mikroegitura azalduko ditut. Sail hau egiteko, Urgell (2002a, 1.-17. or.) laneko irizpideei jarraitu diet.

3.1. Hiztegiaren hedadura

Hiztegia tamaina txikiko hitz zerrenda soila da. 689 sarrera daude, baina horietako 19k ez dute ordainik: sarreraburu baina ez. Ordainik gabeko sarreraren artean, 23. orrialdeko *Genero*, *Genero* eta *Golpe* 24. orrialdean berriro kopiatu dira, ordainekin; halaber, 32. orrialdean 13 sarreraburu idatzi dira, baina gero 33. orrialdean ordainekin agertzen dira. Horiez aparte, 10. orrialdean *Capricho* ordainik gabe dugu, 46. orrialdean *Recojerze* hitzari dagokion ordainean *A* baino ez du jartzen eta 49. orrialdean *Satisfaccion* hitzak ez dauka ordainik.

Goian zehaztu bezala, hiztegi elebiduna da, zeinetan gaztelania dugun iturri hizkuntza eta euskara xede hizkuntza. Iturri buruzko atalean (§ 4) saiatuko naiz xedatzen, baina baliteke hiztegi iraulia izatea, kontuan hartuta euskal ordain gehienak XIX. mendeko obretatik atereak diruditela.

3.2. Hiztegiaren antolakuntza (makroegitura)

Azalak kenduta, kaierean hitz zerrenda (Atik Zra) baino ez dago. Horixe liburuxkaren egitura osoa, paratestua diren izenburutxoekin batera; gero xehekiago aztertuko dut sarreraburuen multzoa; hau da, bere nomenklatura.

3.2.1. Nomenklatura

Hitza zer den erabakitzeo, egileak askotariko aukerak egin ditu, irizpide finko bat ez baitu eduki. Bai gaztelaniaz, bai euskaraz denetariko formak jaso dira, ez soilik ize-nak, adjektiboak, izenordainak, aditzak eta adberbioak, baita lokuzioak, perifrasiak eta sintagma osoak ere. Euskal hitzen artean, badirudi erdal mailegu agerikoenak ez zitzaizkiola interesatzen, oso gutxi direlako (*ciertuac* eta *vereno* izan daitezke salbuespen bakarrak).

Egileak ez bide du eredu jakinik izan hiztegirako, eta aieruz osatu du hitz zerrenda hau, jarraian ikusiko ditugun zehaztapenekin. Hala ere, nomenklaturaren etorkia J. A. Mogel, J. J. Mogel eta J. A. Uriarte XIX. mendeko euskal idazle bizkaitarren obra gutxi batzuetan aurki daiteke hein handi batean, 4. atalean erakutsiko dudanez.

3.2.2. Nomenklaturaren hurrenkera

Oro har egileak darabilen hurrenkera alfabetikoak hitzaren lehen hizkiari eragiten dio soilik (*Chispas Hren* azpian badago ere). Gainera, suma daiteke tarte batzuetan euskal ordainak alfabetikoki antolatuta daudela (*AB* mailaraino ere) gaztelaniazko hizki berberaren barruan, adibidez:

(1) a.	Agasajo	Abeguiya
	A tiempo	Adiuntzaz
	Apto	Adyutuba
	[...]	
	Acetre	Antosina
	Adornar	Apaindu
	Atreverze	Azartu
	Atrevim. ^{to}	Azartasuna
	Alboroto	Barallia
	[...]	
	Amenazar	Cematu
	[...]	
	Animarze	Dendatu
	[...]	
	A lo menos	Edolabere

[...]		
A modo de	Guisan	
[...]		
Alcanzar	Jadichi	(1.-2. or.)
b. Clase	Muetia	
Como quiera	Neurdin	
Condescender	Oben eguin	
Ceder	Oben eguin	
Cereza	Queressia	
Carga de leña	Sendorra	
Contajio	Yzurriya	
Cardenal del golpe	Zambrua	
Color caido	Zurbilla	(9. or.)
c. Desterrar	Arroztu	
Desozegado	Artega	
Dedo	Atza	
Desordenado	Bidebagacua	
Digno	Duin	
Dignidad	Duintasuna	
Debil	Erquiña	
Decirse	Esatia	
Dichos hablillas	Esamesac	(14. or.)

Horrek guztiak hiztegi irauliaren hipotesiaren alde egiten du (hau 4. atalean aztertu-ko dut); hau da, iturrietatik ateratako euskal hitzen zerrenda bati gaztelaniazko itzulpenak bilatzea, buelta ematea eta garbira pasatzea. Horrek ere azalduko luke zergatik agertzen diren euskal hitz batzuk behin baino gehiagotan errepikatuta (*aldria: monton, multitud; adimena: juicio, razon; alambere: apesar, con todo eso, sin embargo; arroztu: desterrar, estrañar; beriala: al instante, al momento, al punto...*), gaztelaniazko sarre-raburu desberdinetan sakabanatuta, eta zergatik sarreraburu batzuetan sinonimoak idatzi zituen (*dichos hablillas; flojo pesado*).

Balizko euskarazko zerrenda horri jarraitzen ez zionean, ematen du gaztelaniazko sarre-raburuak otutzen zitzaizkion moduan idatzi zituela, bata bestearen atzetik, nolabait semantikoki, etimologikoki (*diversion, divertir; estraño, extranjero, estrañar...*) edo gramatikalki lotuta (infinetibo asko jarraian, edo hauek bezalako gerundioak: *yendo, estando*).

3.2.3. Beste lagungarri batzuk

Eskuizkribuaren deskribapenean dagoeneko aipatu ditudan izenburutxoak orri guzti-guztien *rectoan* daude, goian idatzita. Horiek hizki larriak dira, salbuespen batekin: *Ll* hizkiarekin hasten diren hitzen gainean *Llegar* hitza da ikusten dugun izenburutxoa

orrialde bakar horretan. Guztira, hauek dira hiztegiko izenburutxoak: A, B, C, D, E, F, G, H, I, J, L, *Llegar*, M, N, O, P, O³, Q, R, S, T, U, X V, Y, Z.


3.3. Sarreraren antolakuntza (mikroegitura)

3.3.1. Sarrera zer den eta sarreraburuak

Honetaz dagoeneko jardun dut orrialdearen antolakuntzari buruzko oharretan, baina errepika dezadan atal honetan forma tipikoa zehaztuta edukitzeko:

Gaztelaniazko hitza (lehen hizkia letra larritan)

Euskal ordaina (lehen hizkia letra larritan)



8. irudia. Zenbait sarrera tipiko Q hizkiaren azpian.

3 O agertzen da P hizkiari dagozkion orrialde batzuetan.

Hori sarrera orokor bat bada ere, xehetasunetan sartu beharko dut eredu horretatik aldentzen diren kasuak iruzkintzeko. Gutxienez ere, bi aldaketa aipatu ditut goian: a) sarrera batzuetan gaztelaniazko hitza guztiz letra xehean idatzita dago, edo euskal ordaina edo biak; b) sarrera bakan batzuetan marratxo luze bat dago sarreraburuaren eta ordainaren artean. Bestelako aldeak sarreraburuaren eta ordainaren eraketan egon daitezke. Jarraian, sarreraburua zer izan daitekeen argituko dut.

Sarreraburuak gaztelaniazko honako hitz kategorია hauek izan daitezke:

- Izenak:
 - Singularrean: *agasajo, acetre, asesino...*
 - Pluralean: *amenidades, apetitos, amigos, brazos...*
- Adjektiboak:
 - Singularrean: *apto, adecuado, cierto, desozegado...*
 - Pluralean: *azperas, buenos, escogidos, malos, obcenos, reconditos...*
 - Maskulinoa eta femeninoa: *hermoso,a; vano,a*
 - Superlatiboak: *afabilisimo, certisima*
- Izenordainak:
 - Pertsona izenordainak: *yo*
 - Posesiboak: *mio, tus*
 - Erakusleak: *aquel, eso*
 - Izenordain erlatiboak: *el cual*
 - Izenordain atonoak: *le (art.º)*
- Aditzak:
 - Infinitiboak: *comer, comprar, cortar, conocer, crecer, caer...*
 - Gerundioak: *acercandome, estando, nombrando, yendo...*
 - Partizipioak: *arrodillado, entrado, pasado, perdido, podido, preparado...*
 - Forma jokatuak: *corresponde, conozco, digo, estaba, era, está, me tenian, no es, oye, puedo, pedire, soy, sabes, será, tenia, ve...*
- Adberbioak: *asi, alla, ahora, bien, bastante, todabia...*
- N/Z hitzak: *¿cómo?, cuando, cuales, donde*
- Preposizioak: *entre, segun, sin...*
- Zenbatzaileak: *uno, todo, tampoco* [tan poco]
- Lokuzioak eta perifrasiak: *a tiempo, al momento, al traves, a modo de, ahora pues, como quiera, fuera desí...*
- Sintagma preposizional osoak: *con el, de aqui, en este, parati (sic)...*

- Bestelako sintagmak: *dura todabia, el mas hermoso, estando en esto, este año, este mes, segun su posibilidad, uno al otro, parece probable...*

Hiztegia gaztelania > euskara den arren, sarrera gutxi batzuetan euskara > gaztelania ordena ere topatzen dugu, seguruenez egileak oharkabean egindako hutsegiteak direla eta. Horietako guztiek, hala ere, hurrenkera alfabetikoa errespetatzen dute:

(2) Cembat	cuantos	(10. or.)
(3) Ce	Que	(12. or.)
(4) Eche	casa	(19. or.)
(5) Galduco	Perder	(24. or.)
(6) Lapurra	Ladron	(33. or.)
(7) Ordu	Hora	(39. or.)
(8) Sen	Semejanza	(48. or.)
(9) Sen	Similitud	(48. or.)
(10) Sen	tendencia	(48. or.)

Hurrenkera urratzen duen kasu berezia dugu hau, zeina *Uren* azpian (orrialdearen hasieran, beste sarrerarik baino lehenago) agertzen den, nahiz eta ezkerreko zutabearen daukagun hitza *Prekin* hasi:

(11) Parece	uzte	(53. or.)
-------------	------	-----------

Hori ez ezik, hurrenkera alfabetikoan ez dagoen beste sarrera bat ere badago; *Yren* azpiko segida honetan ikusten dugun hau:

(12) Yendo	ciarduala	
Estando	ciardenac	(56. or.)

Bitxikerien artean, gaztelania > gaztelania dirudien sarrera hau ere badaukagu:

(13) Sensidos	Sentidoz	(48. or.)
---------------	----------	-----------

Aipatu behar da (gaztelaniazko) sarreraburu batzuk konplexuak direla. Gehienak sintagmak dira, baina batzuetan, gaztelaniazko hitzaz gain, lagungarri bat ere idatzi zuen egileak, bere esanahia zehazteko. Lagungarri hori sinonimo bat edo zehaztapen bat izan daiteke:

(14) Dichos hablillas	Esamesac	(14. or.)
(15) Flojo pesado	Narrasa	(21. or.)
(16) Pesado flojo	Narrasa floje	(40. or.)
(17) Golpe ruido	Otsa	(24. or.)
(18) Ocurrir a la memoria	Otu	(39. or.)
(19) Piedra de Cocina	Dalia	(40. or.)
(20) Carga de leña	Sendorra	(9. or.)
(21) Cardenal del golpe	Zambrua	(9. or.)
(22) Color caido	Zurbilla	(9. or.)
(23) Movim. ^o leve	Cirquina	(35. or.)
(24) Vaso de ojadelata	Antosñia	(54. or.)

Adibide bakar batean zehaztapena parentesi artean eman da:

(25) Cuenta (contar)	Cembatu	(13. or.)
----------------------	---------	-----------

3.3.2. Ordainak

Jakin badakigunez, ordainak euskal hitzak edo lokuzioak dira, salbu eta goian aipatutako hamar kasu horietan, (2)-(10) eta (13) adibideetan. Egileak ordain bat baino ez digu ematen, honako sarrera hauetan izan ezik:

(26) A galope	Lauoiñan Lauoñian	(2. or.)
(27) Levantar	Jaso = Eregui	(33. or.)
(28) Semillero	mintegua edo Acitoquia	(50. or.)

Hiru kasu horietan izan ezik, ordain pilaketa saihesten du autoreak, euskal ordainak sarrera desberdinetan sakabanatzea erabaki baitzuen, gaztelaniazko sarreraburua errepikatuz, bata bestearen azpitik. Hortaz, euskarazko sinonimoak lerro desberdinetan ikusten ditugu, honela:

(29) cieno	cinguira	(10. or.)
cieno	Locatza	

(30)	Empleo Empleo	Eguiquizun Oguibidia	(19. or.)
(31)	Mental Mental	Adinezco Gogozco	(35. or.)
(32)	Mortal Mortal	Yllguilla Eralla	(36. or.)
(33)	Monton Monton	Meta Sendor	(36. or.)
(34)	Mio Mio	Neure Ene	(37. or.)
(35)	Noche Noche	Arratsian Gaba	(38. or.)
(36)	Razon Razon	Adiña Adimena	(46. or.)
(37)	Ultimo Ultimo	Azquenengo azquenic	(53. or.)

Normalean izenkiak (izenak, adjektiboak...) forma artikuludunean ematen dira, absolutibo singularrean (*azartazuna, barallia, dontsua, zamurra...*) edo pluralean (*ondasunac, besuac, autucoac...*), baina badira forma artikulugabeak (*aisse, gorroto, gurari, escotu, mesede, emacume, erdi, egunoroco, andi...*) eta deklinatuak (*arrez, zapladacaz, malcuacaz...*) ere.

Gaztelaniazko infinitiboei dagozkien euskal aditzak gehien-gehienetan forma burutuan idatzi zituen autoreak (*ebagui, aci, emon, esquini, iratzartu, estutu, aditu...*), baina batzuetan aditz izenaren gaineko forma batean ere ematen ditu (*erosten, atsedetaco, eguitia, galduten...*), edo, are gehiago, partizipio prospektiboan (*usteco, galduco*). Euskal aditz lokuzioetan, ordea, lehenengo osagaia ematen du soilik (*Yguez, euri, uste*), aditz arina (*egin, izan*) idatzi gabe.

Horiek horrela, zenbait sarreratan anisomorfismoaren gertakaria lekukotzen dugu, alegia, ordaina ez dela sarreraburuaren itzulpen zehatza, dela euskal morfologia islatzen ez delako, dela sarreraburua eta ordaina kategoria lexiko diferenteetako hitzak direlako:

(38)	Amenidades (izen plurala)	Guiruagaz (izen deklinatua)	(3. or.)
(39)	Hoy (adberbioa)	Gaurco (adberbio deklinatua)	(26. or.)

(40) Podido (partizipioa)	Zatequean (aditz jokatua)	(43. or.)
(41) Reprendio (aditz jokatua)	Aguirica (adberbioa)	(47. or.)

Bereziki nabarmena da ergatibo marka agertzea euskal ordainetan, horrek erakusten digulako euskarazko testu batetik bere horretan kopiatu zirela (gaztelaniazko sarrera-buruan ergatiboa ezin baita islatu):

(42) Companero	Lagunac	(11. or.)
(43) cierto	ciertuac	(11. or.)
(44) El otro	Besteac	(18. or.)
(45) Guarda	Yaoliac	(24. or.)

Azkenik, esan nezake hiztegitileak eskaintzen duen ordain mota *ordain itzultzailea* bada ere, itzulpenak ez direla, antza denez, beti zuzenak edo oso zehatzak. Esaterako:

(46) Conocer	dazauzu	(10. or.)
(47) Fundac. ⁿ de Yg. ^a	Eleizguizona	(21. or.)
(48) Tentacion	ciricatuten	(52. or.)
(49) Vuelan	egaan	(54. or.)

Beste batzuetan, aldiz, bere sena baliatu zuen gaztelaniazko hitz bakar bat itzultzen duten euskarazko perifrasi argiak eratzeko (edo, alderantziz, euskal esapidearen gaztelaniazko itzulpen zehatz bat aurkitu zuen):

(50) Atravesar	Ygaro Alde batetic bestera	(4. or.)
(51) Certisima	Eguiya ciurra	(10. or.)
(52) Ecsageración	Larregui esatia	(18. or.)
(53) Parece probable	Eguya edo da	(40. or.)
(54) Paraiso	Atseguñezco ortuan	(42. or.)

4. ITURRIAK ETA DATAZIOA

Hiztegitxoaren egitura zeharo aztertuta, adibideetan sumatu ahal izan dugu euskal ordainetan islatzen den euskara gehiena ezin dela Orozkokoa izan, mendebaldeko

euskalkia, eta are sartaldeko azpieuskalkia, bada ere⁴. Funtsean, bi ezaugarri morfofonologiko dira salatariak: a) epentesi sabaikariak eta b) bokal eufoniak.

Orozkoko lekukotasun idatzietan (Gonzalez, 2020, 56.-58. or.) ez da sekula epentesi sabaikaririk jaso, hau da, hiato bateko /i/ bokalaren ostean /j/ hotsa tartekatzea. Urigoitiko hitz zerrendan asko daude: *aguintariya*, *baliyotsua*, *eguiya*, *esetsiya*, *galdumendiya*, *jaquituriya*, *jartoquiya*, *locarriyac*, *urriya*, *viyotza*, *zoriya*... baina salbuespen nabarmenak ere bai, adibidez *aguintaria*, *galdumendia* eta *jaquituria* errepikatuak, aurrekoa ez bezalako adiera daukan gaztelaniazko sarreraburu baten alboan. Orozko inguruko herri batzuetan, aldiz, emankorra izan da gertakari hau (Gonzalez, 2020, 199. or.).

Era berean, Orozkon ez dago, eta ez da historikoki egon (Gonzalez, 2020, 49. or.), bokal itxierarik hiatoetan (ez bada aurreko silaban dagoen bokal itxi baten eraginagatik; Gonzalez, 2020, 43.-45. or.), hau da, $-e- + V > -iV-$ edo $-o- + V > -uV-$ bilakaeren emaitza. Epentesi sabaikaria bezala, Zuazok (2017, 70.-71. or.) sortaldeko azpieuskalkiaren ezaugarritzat ematen du, eta gehitzen du sartaldekoan ez dela $o > u$ inon egiten. Gure hiztegitxoan, ostera, nahiko arruntak dira bokal aldaketa biak:

- $-e- + V > -iV-$: *adoria*, *auqueria*, *beriala*, *ciarretara*, *cinguiria*, *demporia*, *diadar*, *echia*, *erreguia*, *orainartian*, *prallia*, *quezquia*, *uliac*, *yaolia*. Salbuespen batzuk: *besteac*, *gasteac*.
- $-o- + V > -uV-$: *arguiruago*, *berarizcua*, *besuac*, *bidebagacua*, *celanguac*, *eguala*, *eguan*, *erua*, *escolacua*, *guirua*, *gurasuac*, *malcuacaz*, *mendecuac*, *naguala*, *nai-cua*, *parcaciñua*, *zorionecua*. Salbuespen batzuk: *amaibagacoa*, *autucoac*, *gais-toac*, *zorigaistocoa*.

/e/ bokalari eragiten dion gertakari hau, berriri ere, bada ohikoa Orozko inguruko herri batzuetan (Gonzalez, 2020, 198. or.), /o/ bokalarena ez bada ere.

Gorago azaldu dut gure hitz zerrenda hiztegi iraulia izan litekeela. Behinolako euskal hitz zerrendetan arrunta izan ei zen iturri batzuetako hitzak batzea eta, buelta emanda, horiei itzulpenak bilatzea. Paralelo batzuk ditugu Larramendiren *Hiztegi hirukoitzaren Eranskinean* (Urgell, 2002b), Martin Harrieten hiztegitan (Urgell, 2009) eta duela gutxi aztertutako *Pomier* hiztegi (Gómez-López & Zulaika, 2020).

Urigoitiko hiztegitxoan bezala, Larramendiren *Eranskinean* sarreraburuek ez diote alfabeto hurrenkera zurrunari jarraitzen, eta askotariko arrazoiak dirateke horren

4 Sozietiboko markak, *-agaz* (*guiruagaz*, *beragaz*) singularrean eta *-akaz* (*zapladacaz*, *malcuacaz*, *chistuacas*) pluralean, dira ezaugarri erabakigarria hori zehazteko (Zuazo, 2017, 39. eta 78. or.), baina *eucan* 'zeukan', *eutsan* 'zion', *dot* 'dut' eta *naz* 'naiz' adizkiak ere frogatu dira (Zuazo, 2017, 45.-49. or.). Horietaz gain, mendebaldeko aldaketa morfofonologikoak ere badaude, esaterako $-e > -a$ (Zuazo, 2017, 18. or.): *yracaslá*, *conorta*; $-itz > -(i)tx$ (Zuazo, 2017, 28. or.): *gach*; $-zio > -ziño$ (Zuazo, 2017, 30. or.): *gogoraciñoa*, *parcaciñua*. Mendebaldeko euskalkiari dagozkion lexiko eta aldaera berezien artean hauek aipatuko nituzke: *azartu*, *baltza*, *bildurra*, *cematu*, *dempora*, *emon*, *guichi*, *olgau*, *otzitu*, *uliac*.

atzetik: familiako hitzak biltzeko joera, adiera desberdinak sarreretan sakabanatzea, iturri desberdinetako hitzak tartekatzea... (Urgell, 2002b, 88. or.). Deskripzioan erakutsi bezala, gure hitz zerrendan ere fenomeno horien lekuko izan gara.

Harrieten euskara-frantsesa hiztegian xede hizkuntza denak behin baino gehiagotan markatzen du sarreren hurrenkera alfabetikoa hizki jakin batez hasten diren euskarazko sarrera buruen artean (Urgell, 2009, 880.-881. or.), eta horri esker ondoriozta daiteke «frantses zutabearen antolakuntzak argi eta garbi adierazten du[ela] lehenago ondutako frantsesa-euskara hiztegi baten bihurketa dela» (Urgell, 2009, 884. or.). Urigoitiko hitz zerrendan frogatu dut (§ 3.2.2) xede hizkuntzaren ordainen ordenak ere eragina duela sarreraburuen antolamenduan.

Pomier hiztegian, orobat, antzeko egoera baten aurrean geundeke, euskara-gaztelania hiztegia izanda ere: «[g]aztelaniazko hitzak *PHn* alfabetikoki nola antolatzen diren aztertzen badugu, begi-bistan [bait]dago iturri bezala erabilitako hiztegi hartan lemak gaztelaniaz zeudela» (Gómez-López & Zulaika, 2020, 283. or.).

Horrenbestez, esku artean darabildan hitz zerrendan euskal ordainak ere multzoka ordena alfabetikoan agertzeak, euskal hitzen adiera desberdinen sakabanaketak, lokuizioak, perifrasiak eta sintagmak sarreraburuan idazteak, eta zenbaitetan bi zutabeen arteko trukaketak, beste argudio batzuen artean, euskarazko iturri bat edo batzuk erabili zituela pentsarazten didate, ikusita inondik inora ere ez dela kasu isolatua.

Horrekin bat, argigarria da, oso, Urgellen (2009, 885. or.) aipu hau:

Edozein hiztegiz dela, izan litezkeen iturriak arakatzea oinarritzko zereginetako bat dugu, zeren eta hiztegitxile gutxi baitago munduan, dena bere burutik atera duenik [...] Nabarmena da, izan ere, Harrietek ez duela hiztegia bere kabuz osatu, bere etxeko euskara hutsean soilik oinarrituta. Aitzitik, hein oso handi batean (% 70 inguru gure laginaren arabera) euskal hitzak iturri idatzietatik hartuak bide dira.

Hortaz, gure egileak euskaraz idatzitako testu bat edo batzuk baliatu bazituen, zeintzuk ziren topatzeko aukera dago. Abantaila bat daukagu hiztegitxileak ordainetan lokuzio osoak eta forma deklinatu oso zehatzak ipini zituelako, eta horietako batzuk obra bakar batean baino ezin dira aurkitu. *Euskal klasikoen corpusean* (Euskara Institutua, 2013) bilatuz gero (ortografia gaurkotuan), emaitzek gutxienez bi liburu ziurtatzen dizkigute, horietan hiztegitxoan dauden ordain batzuk eskusiboki agertzen baitira⁵.

Jose Antonio Uriarteren *Marijaren illa* (1850) liburuan baino ez ditut hauexek aurkitu: *badakutzu*, *ezkutubenerañokuak*, *giruagaz*, *ixillenerañokuak*, *neunkeen*, *txistua-kaz* eta *zintzatekezala*. Gainera, Urigoitiko hitz zerrendan dauden *abegija*, *azartasuna*, *darraikot*, *dirau oraindik*, *edolabere*, *esetsi*, *esetsija*, *geixo*, *idigi*, *jaubegeija*, *kleitua*,

5 Puntu honetatik aurrera aipatuko ditudan idazleen obrak *Euskal klasikoen corpusean* arakatu ditut.

*onetan ziarduela*⁶, *onezaz ganera*, *urreratuaz*, *zemaia* eta *ziarretara* hor ere topatzen ditugu, beste idazle bakan batzuen obretan ere egon arren.

Aurreko iturria bezain argia ez bada ere, Juan Jose Mogelen *Egunoroko lan-on ta erregubak* (1820) lanean *adiutuba* eskusiboa daukagu (aldea horretan ez da beste inon lekukotzen) eta *jaditxi* aditz bitxia, soilik bost idazleren lanetan aurkitua. Uriarteren liburuan zein J. J. Mogelenean, bietan beste batzuen artean, hauexek guztiak azaltzen dira: *adiuntzaz*, *amaibaga*, *azartu*, *azkortu*, *eskintsarija*, *etsigi*, *ezaindurik*, *giñuan*, *gomutia* eta *malkuakaz*.

Juan Antonio Mogel idazle ezagunaren obra batzuetan ere gure hiztegitxoan idatzi ziren ordain batzuk topa daitezke. Hala ere, horietan ez dago aldea eskusiborik; esaterako, *muetia* eta *neurdin Peru Abarcan* daude, baina baita beste idazle batzuen testuetan ere.

Aipatutako obretan zenbait bat etortze eskusibo daudela kontuan hartuz, eskusiboak ez diren aurkikuntzak pilatzeak frogatzen digu gure hitz zerrendaren egileak eskura izan zituela baieztatzen. Ordainen kopurua ikusita, *Marijaren illa* (1850) iturri ziurra da, eta besteak egiantzekoak, baina ez ezinbestean erabiliak.

Testua datatze aldera, iturriak izan zitezkeen obren argitalpen urteek XIX. mendearen bigarren erdian ezartzen digute *post quem* data bat, hiztegitxo ezin baitzen idatzi liburu horietan agertzen diren hitzak eta lokuzioak argitaratu aurretik.

Bestelako frogen artean, idazkerari errepara diezaiokegu lorratzen bila. Grafia jakin batzuek euskara motaren geografia eta kronologia kokatzen lagun diezagukete. Berezi esanguratsua izan daiteke y hizkiaren erabilera: batetik, hitz hasieran /i/ bokala adierazteko, letra larritan sistematikoki <Y> idatzen du biltzaileak, euskaraz zein gaztelaniaz. Erabilera zaharkitu hori *Real Academia Españolak* dagoeneko baztertu zuen 1726. urteko *Diccionario de autoridadesen* (Real Academia Española, d. g.), baina uler daiteke <Y>-ren balio bokalikoa ez zela berehala eskoletatik desagertu eta hamarkada batzuetan artean ere horrela idatzen irakasten zela; baliteke hiztegitxoaren egilea XVIII. mende amaieran jaioa eta eskolatua izatea. Heine batean *usus scribendi* horrek XIX. mendera mugatzen gaitu, hitz hasierako <Y> bokalikoaren azken agerraldiak *ante quem* data ezarriko bailuke.

Antzeko ikerketetan begiratuz gero, J. P. Ulibarri (1775-1847) ere bere hiztegian hitz hasierako /i/ beti <Y> idatzi zuen (Ulibarri, 2011, 533. or.), eta 1808. urtetik aurrera kopiatutako *Pomier* hiztegian ere <Yndifente> bezalakoak daude (Gómez-López & Zulaika, 2020, 22. or.).

Bestalde, y hizkiaren balio kontsonantikoa ere auzian dugu, erabilera nahiko idiosinkratikoa egin zuelako hiztegitxoaren biltzaileak, batez ere garai hartako bizkaierazko

⁶ Hau, Uriarteren liburutik kanpo, Frantzisko Lardizabal zaldibiarren *Testamentu Berriko kondaira* (1855) obran baino ez dago.


testuekin alderatuta. Urigoititik gertuko Areatzan (Arratia) sortutako Pedro Añibarro idazleak grafia fonetikoagoa lortzeko ezarri zituen irizpideen artean hitz hasierako /j/ hotsa <y> idaztea proposatu zuen bere *Esku-liburuaren* bigarren edizioan (Urgell, 2018, 608. or.), 1821ean. Horrela islatu zen sistematikoki, esaterako, XIX. mendearen lehen erdiko J. P. Ulibarriren hiztegian (Ulibarri, 2011, 539. or.). Urigoitiko hiztegian, ordea, erabateko nagusitasuna dute <J> duten euskal ordainek (*Jazo, Jaun, Jarraitu, Jaquituria, Jantziera, Jagui...*), salbuespenak soil-soilik *Yarqui, Yaoliac* eta *Yaolia* baitira.

Hitz hasieran bezala, Añibarrok epentesi sabaikaria ere <y> idatzi zuen, eta usadio hori Luis Luziano Bonapartek prestatutako 1878ko *Ereilearen parabolaren* bizkaierazko testuan ere jasotzen dugu (*egaztiyak, lodiya*), aurreko edizioan, 1857koan, <ija> idatzi bazuen ere (Urgell, 2018, 612.-613. or.). Aztertu dudana hiztegitxoan epentesi sabaikaria <y>-ren bidez adierazten da 38 aldiz (*cemaiya, zoriya, viyotza, eguiya, biyaramon, baliyotsua...*), eta birritan baino ez dago <ija>: *abeguija, ezeuquijac*. Añibarroren proposamen aitzindaria gorabehera, XIX. mendearen bigarren erdian egokituko genuke <y> grafia epentesian, Bonapartek literatur euskalkien estandarizazioan izan zuen pisuagatik.

Balirudike, iturriak gorabehera, hiztegitikoeak berariazko grafia moldaketa bat erabili zuela euskarazko hitzak transkribatzerakoan, eta hots berbera idazteko (/j/) bi grafia baliatu zituela: <J> hitz hasieran eta <y> bokalen artean. Hala ere, hipotesi zinez iradokitzailea izan liteke proposatzea egilearen hizkeran kasu biak ez zirela benetan hots bakarra, aintzat hartuz Orozko eta Aiaraldeko euskararen /x/ hotsa euskal ondareko hitzen hasieran egon dela eta badagoela (Gonzalez, 2020, 77.-79. eta 218. or.), inguruko Bizkaian ez bezala.

Hain zuzen ere, /x/ hotsaren kontuak hiztegitxoaren balizko azken iturri baterako zirrikitu bat zabaltzen digu, ahozko lekukotasunak ere erabili zituen zantzuak egon badaudelako, gutxi izan arren, Larramendiren *Eranskinean* bezala: «Ez dira hitz gehiegi, hain oparoa izan bide zen iturria izateko» (Urgell, 2002b, 38. or.).

Hitz zerrendan topa daitekeen adibide argigarriena, beharbada, 2. orrialdean dugu: elkarren segidako lau sarreraburu berdinetan (*Alcanzar*) euskal aditz berberaren lau aldaera fonetiko eman ziren ordain gisa (*Jadichi, Jadietsi, Jeretsi, Jarichi*); horietatik hiru dokumentatuta daude XIX. mendeko obra idatzi batzuetan (*Jadichi, Jadietsi, Jarichi*), eta bestea (*Jeretsi*) ahozko aldaera izan daiteke.



9. irudia. *Alcanzar* sarreraburuak eta euren euskal ordainak.

Beherago (C hizkian), horrelako beste kasu bat ikusten dugu, sarrerak jarraian ematen ez baditu ere: *Cama oeiya; Cama obia; Cama oia*. Horietatik soilik azkena da Mogel eta Uriarte idazleen obretan jaso, eta <oeiya> eta <obia> forma bitxiak ahoz bildutakoak izan daitezke.

Segida horiek hiztegiaren hasieran daudenez, menturaz egilearen hasierako asmoaren berri ematen digute, hau da, lan idatzietatik ateratako euskarazko hitzen zerrenda bere inguruan entzundako ahozko sinonimo eta aldaerekin aberastea.

Izan ere, iturri literarioetan agertzen ez diren ordainek tokiko ezaugarri dialektalen berri eman diezagukete, hala nola Orozkokoa eta ingurukoa izan zen o bokalaren osteko epentesi ezpainkaria (Gonzalez, 2020, 56. or.), <obia> aldaeran bezalatsukoa. Era berean, hiztegitxoan daukagun <zoriuntasun> formak Orozkoko bereizgarria den -io- > -iu- bokal aldaketa dauka (Gonzalez, 2020, 52. or.), nahiz eta Pedro Añibarro arratiarraren *Esku-liburuan* (1802/1821) ere badagoen⁷.

Lekukotu gabeko euskal ordainen artean, Urigoitiko hitz zerrendan idatzi zen <guesotegua> aldaera daukagu; ez dago inongo hiztegitan edo liburutan jasota, *gueisotegui* eta *gueissotegui* (Uriarteren *Marijaren illan*) badaude ere.


Bestalde, ahozko iturrien erabileraren froga gisa aditz jokatuaren tratamendua dugu. Irudituko luke gaztelaniazko sarreraburu batzuen euskal ordainak hiztun baten bat-bateko itzulpena direla, adibidez *conocer dazauzu*, *conozco dazaut*, *desconocer ezdazauna*. Ohartu lehena eta azkena infinitiboak direla gaztelaniaz, eta emandako ordainak forma jokatu bat (*dazauzu* ‘ezagutzen duzu’) eta esaldi bat (*ezdazauna* ‘ez da (e)za(g)una’)⁸. Halaber, berriemaile bati galdetutakoa dirudi *noloze ez daquit* sarrerak. 52. orrialdean jasotzen dugun *tubo euean*, *tubo eucan*, *tenia eucalan*⁹ segidak ere aditz jokatuak itzultzen oso jantzia ez den euskaldun baten ahotik aterea ematen du.



10. irudia. <Zoriuntasun> euskal ordaina.



11. irudia. <Guesotegua> euskal ordaina.



12. irudia. *Desconocer Ez dazauna* sarrera.

7 Aldaera hori eta bere eratorriak Añibaroren obratik kanpo ez dira lekukotzen; hor sei agerraldi daude: *zoriuntasun*, *zoriundu*, *zoriunduten*, *zoriunduteko*, *zoriundurik* eta *zoriundu*.

8 Berrikusleek ohartarazi didatenez, baliteke 3. pertsona singularreko forma trinkoa izatea, hau da, ‘ez dazau(a)na’.

9 Hauxe da hiztegitxoan dagoen aditz jokatu bati atxikitako -lan atzizki mendebaldarraren agerpen bakarra, adberbio hauetan bada ere: *onelan*, *celan*. Ez da, hala ere, -la(n) atzizkia lehenaldi burutugabeko adizki bat ordezkatzeko baliatzen duen kasu bakarra: *estaba eguala* ere bada. Beste guztietan (osagarri perpausetako -(e)la ez denean) gerundio gisa dago gaztelaniara itzulita: *estando ciarduela*, *estando naguala*, *estando natzala*, *estando eguala*, *yendo nabillela*, *yendo ciarduala*.

Azkenik, jadanik aipatu diren euskarazko lokuzio batzuek ahozotasuna salatzen dute, berriro ere hitzun bati bururatu zitzaizkion berehalako itzulpenen antza daukatelako: *Ecsageración Larregui esatia; Parece probable Eguya edo da.*



13. irudia. *Parece probable Eguya edo da* sarrera.

5. HIZTEGIGILEAREN IKUSPEGIA

Aurreko guztiari lotuta, hiztegitxoaren asmoari buruz bi hitz esan nahi ditut. Egileaz gutxi dakigun arren, edukiari erreparatuz gero, zenbait igarpen egin ditzaket. Hasteko, argi dago autoreak eskura izan zituen iturri batzuk erabili zituela: idatzizko batzuk eta, beharbada, ahozkoak ere bai. Bestalde, badirudi islatu zituen euskal ordainak XIX. mendekoak direla.

Hala ere, biltzailearen helburua ez bide zen ohiko (argitaratzeko) «hiztegia» egitea. Koadernoak daukan itxuragatik, berarentzat egindako zerrenda erabilgarri bat dirudi, han eta hemen jasotako hitzez hornitua, eta batzuetan nahiko nahas-mahas eratu (esaterako, sarreraburu batzuk euskal hitzak dira). Bere azken xedea finkatzea, ordea, zailago gertatzen zait; liburuetan topatzen zituen euskal hitz zailak ulertu ahal izatea ote? Euskaraz idazteko baliagarri (gaztelania > euskara ordenagatik)? Asmo biltzaile hutsa?

Arazotsua da, orobat, egilearen profila osatzea. Hitzak eta euren grafiak arakaturatuta (§ 2), ez dago zalantzarik pertsona letratua zela, baina, aldi berean, erabili zituen forma ezohiko batzuek (*desozegado, hozpital, lavioz, lenga, ler, lejoz, levantace, liverdad, no-loze...*) iradokitzen digute gaztelania idatzia ez zuela erabat menperatzen, eta euskaraz ere hala-hola moldatzen zela, gehienetan euskal hitzak bere horretan uzten dituelako, deklinabideko atzizkiak ez kendu, ezta itzuli ere gabe (adibidez, *Afabilisimo Gozatuena-gaz, Gusanos Arrez, Golpes Zapladacaz, Lagrimas Malcuacaz, Llamas Garrez, Silvidoz Chistuacaz...*).

6. ONDORIOAK

Laburbilduz, Orozkoko auzo garai batean aurkitutako kaier txikiak 689 sarrerako gaztelania-euskara hiztegi eskuizkribatu bat dakar barruan. Hiztegiaren antolamenduaren zenbait ezaugarriak ikusita (izenburutxoak, sarreraburu konplexuak, sarreraburu eta ordainen errepikapenak...), esango nuke egileak han-hemen topatu zituen hitzak bildu nahi izan zituela hurrenkera alfabetikoan.

Hiztegitxoak baliatu bide zituen iturri gehienak XIX. mendeko obra literarioak dira. Ezaugarri grafiko batzuek ere XIX. mendearen bigarren erdian kokatzen dute eskuizkribua. Mendebaldeko euskalkian idatzita dauden arren, euskal ordain gehienetako euskara mota ez da Orozkokoa, eta oso zantzu gutxi egon litezke baieztatzeko

autoreak herri horretako ahozko testigantzetatik edan zuela. Hala ere, euskarazko berba eta sintagma ugari sartaldeko azpieuskalkikoak dira, eta lasai asko Orozko inguruko herrietakoak izan zitezkeen.

Ezaugarri fonetiko gutxi batzuek (*obV* epentesia, *-io-* > *-iu-*) eta <j> grafemaren erabilera iradoki ahal digute hego-sartaldeko eremuaren eragina. Horri guztiari gehitu beharko nioke aurreko azalean igar dezakegun <Luyando> idazkuna (gaurko Luiaondo, Aiara udalerrian, Orozkoren herri mugakidea mendietan barrena), esateko seguruenez hiztegitxoak agertu zen lekutik ez oso urrun ondu zela.

7. ERREFERENTZIAK

- Euskara Institutua. (2013). *Euskal klasikoen corpora (EKC)*. UPV/EHU. <https://www.ehu.eus/ehg/kc/>
- Gómez-López, R. & Zulaika, J. M. (2020). *Pomier hiztegiaren datazio arazoez*. In I. Camino, X. Artiagoitia, I. Epelde & K. Ulibarri (arg.), *Eibartik Zuberoara euskalkietan barrena. Koldo Zuazori gorazarre (277.-293. or.)*. UPV/EHU.
- Gonzalez, A. (2020). *Orozko euskara mendebaldeko hizkeren artean* [Master amaierako lan argitaragabea]. UPV/EHU.
- Moreno García del Pulgar, M. (2007). Cancioneros y codicología. Propuesta de un modelo de descripción codicológica. *Cancionero General*, 5, 59-99.
- Real Academia Española. (d. g.). *Diccionario de autoridades (1726-1739)*. <https://apps2.rae.es/DA.html>
- Ulibarri, K. (2011). XIX. mendeko hiztegien azterketaz: J. P. Ulibarri Gallindezen hiztegiaren kasua. In J. A. Lakarra, J. Gorrotxategi & B. Urgell (arg.), *Koldo Mitxelena Katedraren II. Biltzarra (529.-547. or.)*. UPV/EHU.
- Urgell, B. (2002a). *Euskal lexikografia. Irakaskuntza proiektua* [Irakaskuntza-proiektua, UPV/EHU]. ADDI. <https://addi.ehu.es/handle/10810/9990>
- Urgell, B. (2002b). *Larramendiren Hiztegi Hirukoitza-ren eranskina: saio bat hiztegi-gintzaren testukritikaz*. «Julio Urkixo» Euskal Filologia Mintegia & Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Urgell, B. (2009). Martin Harrieten hiztegiak: eraketari buruzko zenbait berri. *ASJU*, 43(1-2), 873-889. <https://doi.org/10.1387/asju.1772>
- Urgell, B. (2018). Lehen Euskara Modernoa. In J. Gorrotxategi, I. Igartua & J. A. Lakarra (arg.), *Euskararen historia (543.-657. or.)*. Eusko Jaurlaritza.
- Zuazo, K. (2017). *Mendebaleko euskara*. Elkar.